

Fidel Izarra Larrea Izarranekua
Ermua, Bizkaia (1926-2009)

Aurkibidea

Biografia

Ermuko "Abadetxe" ondoan jaio zen 1926. urtean. Hamargarrena izan zen Obdulia eta Teodororen 12 seme-alaben artean. 15 urtera arteko eskolak Ermuan hartu zituen eta handik aurrerakoak Eibarren: "Artamendiren" jostundegian hasi zen jostun izateko ikasten, eta arratsaldez Jesusa Arregiren akademiara joaten zen kontabilitatea eta "Instrucción general" ikastera. Hari eta jostorratz kontuok bertan behera laga behar izan zituen aitzak "Izarra" tailerra jarri eta hango bulegoko lanak bere kargu laga zituenean. 1955ean Maria Dolores Izagirre Olañetarekin ezkondu zen eta elkarriketan bera izan zuen lagun. Gaztetan Santiago Parrokian akolito ibili zen luzaroan; elkarriketa egin zitzaionean oraindik ere bere gain hartzen zituen bertako hainbat ardura. Hizlari aparta.

Zintak

ERM-041

- **Proiektua:** Ermuko Ahozko Ondarea
- **Elkarriketatzailea(k):** Gonzalez, Esti

- **Data:** 2008-06-26
- **Iraupena:** 88 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Emalea:** Gonzalez, Esti

Pasarteak

1. Akolito mutikotan

- **Erref:** ERM-041/003
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:02:58. **Bukatu:** 00:05:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Bi urtez akolito (monagilo) egon zen. Don Crispulok oso txukun izaten zuen sakristia. Bere monagilo propioa ez beste guztiak oso estu hartzen zituen. Erreronera joaten ziren ikatz isiotuaren bila intsentsu ontzia sutzeko.</p>

2. Kangrejotan guardaren beldurrez

- **Erref:** ERM-041/004
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:05:50. **Bukatu:** 00:07:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Mailuki eta sagar lapurretan ibiltzen ziren. Boluetako kunbora joaten ziren bainatzera. Kangrejotan ere egiten zuten. Lehen-lehen ez, baina gerora guardak zaintzen zuen erreka eta ezkutuan ibili behar izaten zuten.

Transkripzioa

-Gero baserrixetan maillukixak edo sagarrak edo holakuak lapurretan, bueno... Hamen inguruko guztiak. Hor San Antonio Txiki, Berano aldian, hor beti horraxa. Han zera dago, presa bat. Ez, kunbo bat esaten getsan. Kunbo bat, famosua euan zerian, Bolueta, Bolueta. Hantxe igarira joaten giñan eta kangrejuak hartu ta holakuak. Gero ekin otsen zerak kangrejuak-eta pixkat zertzen. Etortzen zan zer bat, zaintzaille bat erreka-eta, eta bueno! Harek harrapatzen bazittun ba. Horretxek tranpok bai, kangrejuak harrapatzen. Porke lehen lagatzen eben horrek gauzok, baiña gero zan, zer gehixao etortzen zan, más militar o más... Bai, guardia, guardia, erreka zaintzaillia. Eta gero ya kangrejuak, hamen inguruko kangrejuak joan zien. Hamen ez dago berriro, baiña guri asko gustatzen jakun kangrejuak.

3. Aitaren txabola

- **Erref:** ERM-041/005

- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:07:03. **Bukatu:** 00:08:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Lursailtxo bat zuten eta baratzea, konejuak eta abar izaten zituzten. Ur korrontea zuen barrika eta eguzki-erloju berezia.</p>

4. Konpas = txukun

- **Erref:** ERM-041/007
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:09:12. **Bukatu:** 00:10:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Sasoi hartan "konpas" berba asko erabiltzen ei zen txukun, ordenatu, zentzuan. Don Crispulogatik dio "konpas" izaten zuela sakristia.

5. Elizakoak eta errogatibak auzo eta baserrietan

- **Erref:** ERM-041/009
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:11:28. **Bukatu:** 00:13:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Hiletetan 3 edo lau akolitok hartzen zuten parte. Auzoetara ere joan izan zen inoiz elizakoak eroatera eta errogatibak egitera. Armozua eta gailletak ematen zizkieten zenbait etxetan</p>

6. Artamendiren sastrerian beharrean

- **Erref:** ERM-041/011
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:15:58. **Bukatu:** 00:17:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Eibarko Artamendiren jostundegian hasi zen lanean ikaste aldera. Lanetik irtendakoan eskolara joaten zen. Bost urte egin zituen lanean baina ez zuen ofizioa ikasi. Gero etxeko tailerrean sartu zen lanean.

7. Mutil formala, nahiz eta "drogia" apur bat gustatu

- **Erref:** ERM-041/012
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:17:00. **Bukatu:** 00:18:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Mutiko formala izan da eskolan, nahiz eta "drogia" apur bat gustatu, lagunekin isilpean berriketan ibiltzea eta horrela. Diktaketak, gramatika, zatikiak eta horrelakoak ikasten zituzten.

8. Eibarko euskaran zarraparra gehiago

- **Erref:** ERM-041/013
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:18:20. **Bukatu:** 00:21:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Eskola eta liburuak erdaraz txikitan. Sallabenten euskaraz ematen zen eskola. Etxean eta lagunartean beti euskaraz, Ermuko euskaraz. Euskara batuari eta Eibarko euskarari buruzko komentarioak. Bakioko "aittu" (aditu) batek kargu hartzen zien euskara txarra egiten ei zutelako.</p>

9. Txintxurrian eta sokasaltuan

- **Erref:** ERM-041/015
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:22:30. **Bukatu:** 00:23:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Txintxurrian (marra batzuk lurrean egin eta hankaz harri bat bultzatzen) eta sokasaltoan ibiltzen ziren jolasean. Bera txikia eta argala zenez, oso ajila eta bizkorra zen.

10. Gerra denboran txandak zaintzen

- **Erref:** ERM-041/016
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:23:38. **Bukatu:** 00:26:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra denbora garai txarra izan zen, beti txandatan janaria lortzeko. Frontea oso hurbil zegoen eta elizan intendentzia. Meza beste leku batean ematen zen. Estankoko emakumeari laguntzen zion Durangora gauzak ekartzen.

11. Anaiak bando bietan soldadu

- **Erref:** ERM-041/017
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:26:22. **Bukatu:** 00:28:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gorriek alde egin zutenean, eurei eman zizkieten udaletxeko giltzak. Lau edo bost anaia zituen soldadu, batzuk alde batean eta besteak bestean. Ongarai baserrian egon ziren gerra denboran.

12. Urkoko "funikularra"

- **Erref:** ERM-041/018
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:28:00. **Bukatu:** 00:30:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Urko mendira funikularra ipini zuten materiala igotzeko; baina, estreinatu zuten egunean, abioiek bonbardatu eta hautsi egin zuten. Kanoiak zeuden Urkon. "Funikularra" nolakoa izango zen eta "txirrika" zer den.

Transkripzioa

-Hor Urkora ipini eben funikularra, hortxe zeretik, Malengoneko baiño lehenao, hantxe kantera onduan funikularra. Ba funikularra estreñau eben egunian etorri zian abioi batzuk eta jota dana apurtu eben zeroi, funikularroi. Bobardeua egon zan, bonba batzuk bota zittuen eta, ya segiduan... Azkenako egunak zian orduan.

-Nun ipiñi eben funikularra?

-Funikularra ipiñi eben, Urko Bekuan. Oin Urko Bekua ez dago, ez da agertzen. Ta hamentxe behian, hor Olkinzuri esaten gentsan guk, Okinzurittik gora ein eben Urkora materixala jasotzeko. Porke han Urko Goixan euan zera, kaiñoiak, Arratera begira. Arratetik euazen hona begira, ezta, baiña hamendik Arratera. Ta hor materixala jasotzeko, porke bestelan hamendik jasotzeko Urko Goikora... Urko Goikora ez, Urkoko puntara, ipini eben funikular bat. Baiña ez dot pentsatzen zertu zanik. Orduan segiduan etorri zian..

-[...]

-Kablia edo, zer bat. Guk funikularra esaten gentsaun baiña itxuria karrete bat edo holan poste batzuk ipiniko zittuen. Porke guk ez genduan.. Bai ba, horretxek obusak, balak eta jasotzeko.

-Muniziñua, ezta?

-Muniziñua, klaro
-Ez zan gutxi kostako orduan denporan holako funikularra...
-Bai ba. Funikularra... Ez, baiña postiak eta kabina batzuk holan zeoze txirrikiakin edo izango zan, baiña ez zan zertu.
-Txirrikia zer da?
-Txirrikia, oin hamen andamiuak ibiltzen dabe ba. Horrek eukitzen dabe zer bat, errobera bat, "txirrikia" esaten gentsaun guk horrerri. Orduan txirri eingo eban, ez dakit zeregaittik [esango zan] txirrikia. Polea batzuk, baiña burdiñazkuak. Polea kanala einda, kablia joango zan eta.

13. Jana lortzeko komeriak gerra denboran eta ostean

- **Erref:** ERM-041/019
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:30:23. **Bukatu:** 00:32:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:

Armadako sukaldari batzuk giputzak ziren, ezagunak zituzten; eta, mutikoak joaten zitzaizkienean, jana ematen zieten: paella, normalean. Beti ilaran janari zain. Urte gogorrak, baina zelan edo halan irten zuten aurrera.

14. Gazte denbora elizaren inguruan

- **Erref:** ERM-041/020
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:32:47. **Bukatu:** 00:33:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak

Laburpena:

<p>Gazte denbora elizaren inguruan eman zuen: luistarrak, 'Acción Católica'... 'Acción Católica'k lokal bat zuen kafetegia eta areto batekin, eta txandaka tokatzen zitzaien haren ardura.</p>

15. Erromeriak

- **Erref:** ERM-041/021
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:33:50. **Bukatu:** 00:35:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Gaztetan inguruko erromerietara joaten ziren asko: Areitio, Trabakua, Geria... Geroago hasi ziren Eibarrera-eta joaten.

16. Gose denborako bihurrikeriak

- **Erref:** ERM-041/022
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:35:39. **Bukatu:** 00:38:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Gaztetan nahiko basatiak ziren: mailuki edo madari lapurretan sarri ibiltzen ziren. Goseagatik ere bai apur bat. Patatak ere harrapatu izan zituzten. Morokila egin izan zuten, nahiz eta berari gustatu ez.

17. Egurrezko eskailera batekin "eskiatzen"

- **Erref:** ERM-041/023
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:38:15. **Bukatu:** 00:39:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Lagun batzuek egurrezko eskailera bat aldapa handi baten gorenera eroaten zuten, lau edo bost mutiko gainean jarri, eta abiada batean jaisten ziren. Lekuari buruzko azalpenak.

18. Errekara bainatzera

- **Erref:** ERM-041/024
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:39:52. **Bukatu:** 00:42:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:

Euren koadrilla Bolueta eta Berano aldera joaten zen udan errekan bainatzera. Oso hotza egoten zen ura. Ez du gogoan bainujantzia erabiltzen zutenik. Etxean egindako zerbait izango zen, beharbada. Galtzontziloak ere gutxik erabiltzen zituzten.

19. Kangrejotan

- **Erref:** ERM-041/025
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:42:44. **Bukatu:** 00:44:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Inguruko erreketan kangrejo asko harrapatzen zuten. Sargu-ezkailuak ere bai presan-eta zakuz egindako sarek.

20. Kantuan

- **Erref:** ERM-041/027
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:46:02. **Bukatu:** 00:48:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>Askok kantatu izan dute. Oraindik ere bai. Trabakuan egindako kantu-saioa aipatzen du. "Ez detsut irigiko" eta "En mi viejo San Juan" abesten ditu. 19 lagun elkartu ziren, denak 80 urtetik gorakoak.</p>

21. Hanbreko Josefa, tabernari berezia

- **Erref:** ERM-041/029
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:53:12. **Bukatu:** 00:56:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Hanbre tabernako Josefa beti jokoan ibiltzen zen. Bezeroak prestatu behar zuen janaria. Kontuak egiterakoan gorabehera barregarriak. "Arraixua".

22. Komedianteak eta antzerkilariak

- **Erref:** ERM-041/030
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:56:05. **Bukatu:** 00:59:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Komedianteak etortzen zirenean bizkor asko joaten zen ikustera. Malabarismoak, ahuntzaren numeroa, eta antzerkitxoak ere bai. Behin gizon bat lurperatu zuten eta ordu laurden baino gehiago egon zen irten barik. Gero nagusiagoak etortzen ei ziren Probalekura, "más fulanitas", beste estilo batekoak. Ermuarrek ere antzeztzen zuten, zarzuelak eta horrelakoak. Horiek ikustera ere bera lehena.

23. Peora bakoitzean tailerra

- **Erref:** ERM-041/031
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:59:20. **Bukatu:** 01:02:40

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ekonomia eta industria » Boom industrialak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

Bere kalean tailerrak zeuden atari guztietan. Lima-lana egiten zen asko. Jertseak-eta egiteko lantegitxo bat ere jarri zuten andre batzuek. Gerra aurrean pistolak eta eskopetak egiten ziren asko.

24. Habiak ikusten aitarekin

- **Erref:** ERM-041/032
- **Iraupena:** 0:03:53. **Hasi:** 01:02:40. **Bukatu:** 01:06:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Hegaztiak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Gerra aurretik ez zegoen eskopeten kontrolik, baina gero dokumentazioa behar zen. Ehiztari asko familian. Aitak habiak ikustera eramaten zuen, txepetxarena, esaterako. Txoriek inguruan jendea nabaritzen badute "gorrotau", zapuztu, egin dezakete beren habia. Txori izenak.

25. Gari-jotzen Ermuko kalean

- **Erref:** ERM-041/034
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 01:07:45. **Bukatu:** 01:08:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

<p>Ermuko kaleko baserrietan garia jotzen zen, festa bat bezala izaten zen haurrentzat. Ermuko zein kale-baserrian jotzen zen garia esaten du.</p>

Transkripzioa

- Orduan garixa jotia, garijotia eta orduan festetuak izaten zian, gari-jotia. Hamen Montxunian, gure onduan. Gero Trakenian, Santukuan. Han plaza moduan etxe aurrrian ipintzen zittuen gari pilluak eta. Gero, lehen, gaiñera eskuz jotzen zian, baiña gero ez; makinak etortzen zian eta ha basarri-basarri ha makinia ibiltzen zan. Ba oin hau basarrira, gero Patakoniara edo han zerera, baiña... Betiondora; baiña hamen gure inguruan Orozkonekua, Santukua, Trakenekua. Hamen Motxunekuak. Honek herri barrukuak lagundu pixkat zerak kendu. Bai ba. Lastua kendu, gora igo edo. Orduan zeozer traba eitten genduan behintzat han.

26. Etxeko tailerreko lanak.

- **Erref:** ERM-041/036
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 01:10:13. **Bukatu:** 01:12:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Fundizioa
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Burdingintza

Laburpena:

Ebanisteriako gauzak, autoentzako piezak, forja eta horrelakoak egiten zituzten etxeko lantegian. Burdina gogortzeko tenpleaz xehetasunak.

27. Burdina gogortzeko prozesua

- **Erref:** ERM-041/038
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 01:12:50. **Bukatu:** 01:14:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Fundizioa
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Burdingintza

Laburpena:

Burdina altzairu bihurtzeko prozesuaz azalpen teknikoak. Gatz klase diferenteak erabiltzen ziren saldara botatzeko eman nahi zen gogortasunaren arabera.

28. Pedro Kaskillo beti ardangelan sartuta

- **Erref:** ERM-041/041
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 01:16:20. **Bukatu:** 01:18:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Pedro Kaskillok ipurdiarekin intxaurrak apurtzen zituen. Popularra ei zen oso. Pedro Kaskillo beti ostatuan "ardangelia" esaten zioten lekuan sartuta egoten zen. Eurentzat "cuarto oscuro" da ardangela, ardoa ilunetan egoten zelako. Sotoa, azken batean.

29. Txindurri

- **Erref:** ERM-041/043
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 01:20:22. **Bukatu:** 01:22:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Txindurri oso pertsonaia famosoak izan zen. Geltokiko langilea zen. Mutikoekin demandan. ibiltzen zen. Jeneroa garraiatzen zuen dendetara eta. Bertsolaria ere bazen.

30. Tailerretik elizara kanpaiak jotzera

- **Erref:** ERM-041/045
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 01:24:34. **Bukatu:** 01:27:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Tailerretik kanpaiak jotzera irteten ziren lagun bat edo bi, edo Aste Santuan santuak ateratzera. Konfiantza handia zegoen orduan, normala zen beste tailer batera joan eta norberarentzat zenbait lan egitea.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-08-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com